

GAKO EKONOMIKOAK

- Osasun arloan foku kezkarri berriak agertu badira ere, India kasu, ekonomiaren hobekuntza itxaropenak darrai, mundu mailako txertatze kanpainak bultzatuta.
- Igoerak bizi izan dira burtsetan, eta enpresen emaitzek indize horiek sendotzen dituzte.
- Europar errenta finkoko bonuen interesen igoera handia. AEBtan, aldiz, ez, FEDaren pizgarriei eusteko asmoa baita han nagusi.
- Euroaren balioaren igoera. % 6 igo da petrolioaren prezioa.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Apirilean, berri gutxi izan dituzte likidezia fluxuek menderatu dituzten finantza merkatuek. Ekonomiaren eta enpresa jardueren tonu onak aktibo arrisksutsuei laguntzen diete, eta inbertitzaileek arreta banku zentralen laguntzen jarraitutasunean eta pandemiaren eboluzioan dute jarrita. Datuek, oro har, jarduera ekonomikoan dinamismoa izaten jarraitzen dute, non industria sektore orokorrak bizi duen bolada ona zerbitzuen sektorearen hobetze bizkorriari gehitu zaio. Pizgarri fiskaleko plana abian dagoela, enpresei eta errenta altuei zergak igotzea eragingo duenak. Bien bitartean, Europan, pandemiak oraindik ere eragina izaten jarraitzen du, atzeraldiaren mugan dauden zenbait herrialdetan, Eurozonaren PIBean ikus daitekeen moduan, zeinek atzera egin duen 2021eko lehenengo hiruhilekoan. Txertatzearen eritmoa areagotzeko, Next Generation plana martxan jartzean ematen ari diren urratsekin, urtearen bigarren erdialdean hobera egiteko itxaropenei eustea eragin dute. Osasun arloan kezka handiena orain Indian dago, izan ere, herrialde batek orain arte inoiz erregistratu dituen kasuen kopuru handiena baitu. Banku zentralak politika hedakor hau pandemiaren inguruko kezka erabat desegin arte berrikusiko ez denaren mezua jarraitzen dute igortzen. FED-ak, hileko bileran, merkatuak espero zuena bete zuen. Ez zuen aldaketarik egin, ez erreferentzia tasetan, ez bonuen erosketa programan. Powllek tonu lasaia erabiltzen jarraitu zuen bere mezuetan. Boj-ek ere bere moneta politika hedakorra bere horretan mantendu zuen, eta hamarren batean gorantz berrikusi zuen 2021erako hazteko estimazioa, nahiz eta 4pb murriztu zuen bere inflazioaren aurreikuspena. BCEari dagokionez, ez zen berrikuntzarik egon. Lagarde presidentek berretsi zuen urtearen bigarren seihilekoan jarduera sozioekonomikoaren pizkanako hobetzea espero bada ere, ez dela aktiboaren erosketa graduala kentzerik espero, egungo eritmoarekin jarraituko duela zin eginez. Enpresa emaitzei dagokienez, hilaren azken egunetako argitalpen ugarien ondoren, datuek analistek emandako arrekuspenak gainditzen jarraitzen dituzte.

ERRENTA ALDAKORRA

Apirilean burtsek izandako datu ona Atlantikoaren bi aldeetan nagusi den korronte gorakorren barruan sartzen da. Wall Street eta Dax alemanak, besteak beste, haien maximo historikoak hainbat alditan izan dituzten hilean, bete burtsa batzuek, frantziar Cac esaterako, azken 13 urteetan izan ez dituzten mailak urratu dituzte. Hobekuntza ekonomikoak, AEBtako pizgarri fiskal berriek eta enpresen emaitzek bultzatuta, nahiz eta azken egunetan inbertitzaileen artean kontuz ibiltzea eragin duen, hilaren osotasunean, irabazi orokorrak eragin ditu Atlantikoaren alde batean zein bestean, Europan, Eurostoxx-50k % 1,42ko igoera izan du, sektoreko dibergentzia sendo batekin. Zenbait balio ziklikoak, autoket edo petrolio-industriari adibidez, galerak izan zituzten bitartean, beste batzuek, pandemia garaian kaltetuenak, bidaiak eta aisialdia esaterako, irabazi handiak izan dituzte. Bestalde, bankuak, interes-tasen igoeren arabera berreskuratzeko baitoak euren posizioak lbexa gorantz bultzatuz, % 2,74 ain zuren ere... Kontinente Zaharraren gainerako indizeek % 2 eta % 5 bitarteko irabaziak izan dituzte. AEBtan, Nasdaq eta S&P-500 indizeak % 5etik gora birbalorizatu dira. Dow Jones selektiboa aldiz, % 2,71ko igoerarekin bukatu du hilea. Gainerako merkatuetan, herrialde emergenteen burtsek, oro har, % 2,37 gehitu diote urteko kontuari. Bien bitartean, Japonian, Tokion hirugarren larrialdi egoera aldarrikatzeko gobernuaren erabakiak Nikkei indizea hilean negatiboan itxia eragin du.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2021eko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	8.815,00	EUR	%2,74	%9,18
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.974,74	EUR	%1,42	%11,88
S&P-500	AEB	4.181,17	USD	%5,24	%11,32
DOW JONES	AEB	33.874,85	USD	%2,71	%10,68
NASDAQ 100	AEB	13.860,76	USD	%5,88	%7,55
NIKKEI-225	JAPONIA	28.812,63	JPY	%-1,25	%4,99
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.347,61	USD	%2,37	%4,36
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.938,76	EUR	%4,52	%9,25

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOAK

Errenta finkoko merkatuek nolabaiteko dibergentziak utzi dituzte apirilean. Europan, interes tasen errentagarritasunean gorakada orokorra bizi izan da. Hura medio, mahai gainean jarri dira inflazioaren datuak, zerga planaren aurrerapena, banku zentralaren kide batzuen iruzkinak diru pizgarriak gelditzea eskatuz, eta txertatzearen aurrerapenak pizturako hoheranzko itxaropenak, zeinaren ondorioz Ipar Amerikako turismoari ateak ireki ahal izango zaizkiola iragartzen hasi diren. Testuinguru horretan, hamar urterako bonu alemanak 10pbs inguru irabazi zuen eta herrialde periferikoek euren arrisku primen igoera bizi izan zuten. Espainiar bonuaren kasuan, 10 urterako zorraren interesa % 0,48an bukatu da, martxoaren bukaera baino 14pb gainetik. Estatu Batuetan, datu makro onak ezagutu baditugu ere eta, haien arabera, immunizazio prozesuak bere ondorioak ematen ari dela berresten badute ere, errenta finkoko merkatuan FEDaren pizgarriak mantentzean konfiantza handiagoa jarraitzen du izaten nagusi. Horrekin, 10 urterako bonuaren errentagarritasuna % 1,74tik % 1,63ra jaitsi da. Errenta finko pribatuak zor publikoarekiko diferentzialak murriztea lortu du.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2021ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,54	0,00	0,01
	6 HIL.	-0,52	0,00	0,01
	12 HIL.	-0,48	0,00	0,02
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,68	0,01	0,02
	5 URTE	-0,58	0,05	0,16
	10 URTE	-0,20	0,09	0,37
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,49	0,00	0,13
	5 URTE	-0,20	0,07	0,19
	10 URTE	0,48	0,14	0,43

Iturria: Bloomberg

DIBISAK ETA LEHENGAIK

Apirilean, urteko lehenengo hiruhileko joera hautsi da, eta euroa sendoago atara da dolarrarekiko, euro bakoitzeko 1,20 dolarrera iritsiz. Europar blokearen dibisa ere birbalorizatu da librarekiko, eta hilaren bukaeran 0,87£/€-ko baliora iritsi da. Lehengaien merkatuan, gordinarene eskaintza gehiago ez areagotzeko erabakiak petrolioaren prezioa gehiago igo du, Indiako eta Japoniako koronabirus kasuen igoerarengatik kezka egon badago ere. Ondorioz, apirilean % 6,60 igo da upela, 66,53 dolar upelekora iritsi delarik. Urtearen prezioa ere birbalorizatu da, eta hilaren bukaeran % 3,60 igo da, 1.769\$/Oz baliora arte.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg